

# BEGOÑAZPI ASTEKARIA



2022ko urtarrilaren 13a

## KONPROMISOA, INPLIKAZIOA, ALKARTASUNA

BEGOÑAZPI IKASTOLAKO IKASLEAK  
CARITASEGAZ ALKARLANEAN DABILZ:  
ADINEKOEN EGOITZETAN LAGUNDUZ,  
KIROLEAN BALOREAK HEDATUZ...



### GAINERA

BEGOÑAZPI  
ESPERIMENTATU

XAKEA, ADIMEN  
GIMNASIOA

IBERDROLA  
BARRUAN

# ALKARTASUN KEINUAK

Pozgarria benetan, ikasleek daben konpromiso, inplikazio eta alkartasuna ikustea. Zorionak!

Konpromisoa, alkartasuna, justizia...

Ezinbesteko balore honeek ezin doguz ahaztu. Begoñazpi Ikastolako ikasleak horregaitik dabilz Caritasegaz alkarlanean. Batzuetan, adinekoen egoitzetan laguntzen dabe, beste batzuetan kirolean baloreak zabaltzen dabez... Hau guztia, Deituak programaren barruan dagoan jarduera da. Holan jaso dau Bizkaia Irratiak.



BIZKAIA IRRATIA  
Begoñazpi Ikastolako ikasleek Deituak programaren bidez baloreak lantzen ditue  
Hezkuntza tarteak: Begoñazpi Ikastola



ADRIANA SALAZAR  
'XAKEA GELAN'  
LANAREN SORTZAILEA.  
XAKEKO NAZIOARTEKO  
IRAKASLEA ETA HAUR  
HEZKUNTZAKO XAKE  
IRAKASKUNTZAN  
ADITUA.



Xakea ikasteak, ikasleei pentsamendua egituratzen, arazoak konpontzen, pentsatzen, erabakiak hartzen, aztertzen, arreta jartzen, kontzentratzen, ikusmen-memoria eta pertzepzioa indartzen lagunduko deutse.



BEGOÑAZPI IKASTOLAN BETI IZATEN DOGUZ  
ATEAK ZABALIK. BAI BISITA  
PERTSONALIZATUETAN (HITZORDUA NAHI  
DOZUNEAN ESKATU), BAI HONAKO  
JARDUNALDI ZEHATZ HONEETAN:  
- URTARRILAREN 19AN ETA 26AN (18:00ETAN).  
- ZEZEILAREN 2AN ETA 9AN (18:00ETAN).



## IBERDROLAKO SARE ADIMENDUNEN BARRIKUNTZA ZENTRO GLOBALEAN

First Lego Leaguera joatea maila handiko zientzia programa baten parte hartzea da. Besteak beste, Begoñazpi Ikastolako DBHko neskei Iberdrolako Sare Adimendunen Barrikuntza Zentro Globalaren (GSGIHub) barrualdea ezagutzeko aukera emon deutse.

Home / Sareak / Iberdrola  
Los participantes en FIRST LEGO League Euskadi aprenden cómo funcionan las redes inteligentes en el hub de innovación de Iberdrola en Bilbao

